

🎉 MIKELEN ALDAKETA 🎉


Orain dela urte batzuk 1983. urtean New York-en Mikele Gonzalez izeneko neskatila bat bizi zen. Ile horia zuen, handia zen, fina eta indartsua, bihotz onekoa, jatorra eta beti laguntzeko prest zegoen.

Mikelen gurasoak kokoteraino zeuden Mikelek ez zuelako japoniera ikasten.



Orduan bere gurasoek, Japoniako eskola batera aldatu zuten. Eskola berri horretan bullying-a egiten zioten futboleko kamiseta bat eramateagatik eta mutila zela esaten zioten:

- Hori mutilena da- esaten zioten eta etxera negarrez bueltatzen zen egunero.



Etxera iritsitakoan bere gurasoek kamiseta oso zikina zuela ikusi zuten.

- Zer gertatu da? - galdetu zion amak.
- Bullying-a egiten didate eskolan - erantzun zion.




- Ba orduan irakasleari esan beharko diozu ezta? - esan zion aitak.

Mikelek baieztu egin zuen buruarekin negar artean.

- Hori egingo dut.

Hurrengo goizean beldurtuta joan zen eskolara, eta irakasleari gertatutako guztia kontatu zion.



Egun hartatik aurrera ez zioten ezer gehiago esan.

